

## IRABAZI ITURRIAK

Gure enpresak zerbitzu bat eskaintzen du, zehazki autokarabanak eta furgonetak alokairuan jartzen ditugu. Orduan, gure enpresak ordainketa bakarreko diru-sarrerak ditu, bezeroak gure zerbitzua alokatzen duenenean behin egiten duelako ordainketa.

Prezioei dagokienez gureak dinamikoak dira.

Alde batetik sasoiaren arabera aldatzen dira, hau da 3 sasoi mota ditugu: denboraldi altua, erdikoa eta baxua. Beraz, bezeroak adibidez denboraldi altuan alokatuko balu bere ibilgailua gehiagorako ordainduko luke, eta baxuan alokatuz gero, gutxiago. Beste alde batetik, hainbat pakete mota eskaintzen ditugunez, prezioa ere aldatuko litzateke; ez lukete ordainduko prezio berbera pakete bat edo beste bat aukeratuko balute. Horretaz aparte prezioa ibilgailuaren arabera aldatzen da; furgonetak eta autokarabanak eskaintzen ditugunez, autokarabanek furgonetek baino prezio altuagoa izango dute. Azkenik, gure zerbitzua alokatzen duten egunen arabera aldatuko da prezioa.

Gure proiektuak hasieran inbertsio handia behar du, ibilgailuen prezioa oso altua delako eta 6 ibilgailu erosiko ditugulako. Horretaz aparte, garaje gisa funtzionatzen duen lokalaren barruan bulego bat egingo dugu, eta bulego gisa funtzionatzeko hainbat elementu erosi beharko genituzke. Esate baterako: mahai bat mahaigain gisa funtzionatzeko, ordenagailu bat bertatik lanaren zatirik handiena egiteko... Horregatik, bankuan mailegu bat eskatzea erabaki dugu, eta hori bankuari 20 urtean zehar bueltatuko genioke gure zorra guztiz ordaindu arte.

Gure diru-sarrerak lortzeko modu nagusia alokairua da, horien bitartez, bezeroak aldi baterako eskubidea eskuratzen du gure furgonetak eta autokarabanak alokatzeko denbora tarte jakin batez. Gure enpresan ibilgailuak alokatzen ditugunez, dirua lortzeko modu bakarra da, ez ditugulako ez aktiboak saltzen, ez lizentzien bidez diru sarrerak lortzen...

Aukera bat izango litzateke, dirua behar izatekotan, publizitatearen bidez diru-sarrerak lortzea. Ikusiko bagenu ez ditugula diru-sarrera nahiko lortzen gure lokala eta kostu aldakor guztiak ordaintzeko, gure furgonetetan beste enpresa edo negozio batzuen publizitatea egingo genuke. Adibidez Gasteizko enpresa bat izanda bertako negozio txikien (tabernak, auzoetako dendak) publizitatea egingo genuke.